

HITZA

«Maitasuna askatasuna ematea dela sinetsi behar dugu»

ITXASO BERISTAIN
PSIKOTERAPEUTA

Azkoitiko Guraso Eskolen gidaria da zaraustarra. Gurasoek askotariko kezkak dituztela nabarmendu du, eta horiei aurre egiteko gomendioak eman ditu // 4

ANDONI ELIZABEN



Graphenea enpresa teknologikoak egoitza berria izango du Azkoitian

2.260 metro koadroko azalera duten lau lokal hartuko ditu grafenoaren arloan lan egiten duen enpresak Oinartxo industrialdean • Grapheneak aurreikusi du 29 lanpostuko lantaldea izan dezakeela aurki Azkoitian // 7

Azpeitia Santutxon babestutako 28 etxe eraikitzeko Plan Berezia onartu du udalak // 6



Zarautz
errugbi taldea
finalerdietara
sailka daiteke
larunbat honetan

Getxori irabazi eta sailkapenean atzetik dituen taldeek galtzen badute, matematikoki sailkatuko da Zarautz finalaurrekoetara. Porrot egin dute Alcobendasen // 3

Bederatzi taldek abiatu dute XI. Floren Memoriala futbito lehiaketa

Hiru jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko Gure Txeruk antolatzen duen Getariako txapelketan • Finalak maiatzaren 27an jokatuko dituztela jakinarazi dute

-ONINTZA LETE ARRIETA

Getaria

Abian da XI. Floren Memoriala futbito txapelketa. Hirugarren jardunaldia jokatu berri dute asteburuan –partidetako bat ostiral gauean, eta gainerakoak igande arratsaldean–. Bederatzi taldek eman dute izena aurtengoan, eta saiakera egin duten arren, Gure Txeru taldeko arduradunek ez dute lortu emakumezkoen talderik animatzerik txapelketa jokatzera. «Deialdian bereziki azpimarratu genuen gure desioa zela emakumeek ere parte hartzea lehiaketan», konstatu du taldekide batek. «Tama-lez», ez dute lortu. «Hiru emakume apuntatu dira, eta talde bat osatzeko gutxienez zazpi edo zortzi jokalarri behar dira».

Gure Txeruko kideak gaineratu du saiati direla hiru jolakari

horiek mutilen taldeetan integratzen, horiek talde misto bihurtuta, baina momentuz ez dute lortu. Bosgarren jardunaldia arte aukera hori zabalik dagoela ere jakinarazi dute antolatzaileek.

Oraingoz emakumeen talderik ez da animatu lehiaketan jokatzera

Txapelketak bederatzi jardunaldi izango ditu, eta finalaren eguna zehaztuta dute jada: maiatzaren 27an jokatu dute, larunbatez. Ligaxka formatuan ari dira jokatzeko txapelketa, denak denen aurka, baina amaiera aldera liga eta kopa bereiztuko dituzte. Hala, ligako finalerdietako bat izango da sailkapeneko



Aurtengo futbito txapelketako partida bat, Getariako frontoian. GURE TXERU

aurrenekoaren eta laugarrenaren arteko partida, eta beste finalerdia, ligako bigarrenak eta hirugarrenak elkarren kontra jokatu duten partida.

Kopako finalerdia, berriz, bosgarren sailkatuak eta zortzigarren sailkatuak jokatu dute, eta bestea, seigarren eta zazpigarren sailkatuek. Bederatzigarren taldea, berriz, kanpoan geldituko da.

Batzuek alde, besteak etorri
Txapelketako parte hartzaileen artean izan da aldaketarik aurtengo edizioan. Esaterako, iaz

aritu ziren Balearri, Txoko eta Xagu taldeek ez dute izena eman oraingoan. Aldiz, talde berriak apuntatu dira: Abeta Berri Landetxea eta Dorrea, hain zuzen.

Beste zazpi taldeak honakoak dira: Astillero, Haitze, Iribar, Itxas Etxe, Izarri, Taxko eta Kaia-Kaibe.

Datorren asteburuan ligaxkaren ekuadorrera gerturatuko dira, laugarren jardunaldia jokatu baitute. Hitzorduek bihar zehaztuko dituzte, baina momentuz, sailkapenean Haitze taldea da nagusi, orain arteko hiru partidak irabazita; Astillero

da bigarrena, bi partida irabazita, eta hirugarrena, berriz, Abeta. Dena den, bi talde horiek bina partida bakarrik jokatu dituzte oraindik, astero talde batek atsedena izaten duelako.

Iribar taldea laugarrena da sailkapenean, hiru partida jokatu, eta Izarri da bosgarrena, baina horrek partida bat gutxiago jokatu du. Sailkapeneko azken laurak jardunaldi guztiak dituzte jokatu: Itxas Etxe da seigarrena, Taxko zazpigarrena, Kaia-Kaibe zortzigarrena, eta Dorrea, berriz, bederatzigarrena.

Heriotzaz hitz egiteko lau saio antolatu ditu udalak

-O. LETE ARRIETA

Getaria

Heriotzari buruz hitz egiteko saio irekiak eta doakoak antolatu ditu Getariako Udalak udaberri honetarako. Heriotzaz hitz egin dezagun izenburupean, lau saio izango dira, eta Manex Beristain azpeitiarrak gidatuko ditu. Aurreneko saioa martxoaren 30ean izango da, osteguna, Alondegian, 19:00etan hasi eta 21:00etara arte. Hurrengo hitzorduek ere zehaztuta dituzte: apirilaren 20an, maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean izango dira.

Azpiarratu dute gaia «errespetuzko giroan, elkar entzunez eta konfiantzazko espazio seguruan» partekatze-ko aukera ematen dutela saioek. «Norbere heriotza barneratzeko tresnak landuko ditugu, dolu prozesuaren inguruko dinamika egin eta bakoitzaren kezka, egonezin eta ibilbide pertsonalerako baliabideak garatu. Beti ere, heriotza, bizitzaren parte bezala ikusiko dugu, eta bizitzan jarriko dugu fokua», zehaztu dute.

Getariako Gaztetxeko Bertsio Gaia, hilaren 25ean

-O. LETE ARRIETA

Getaria

Getariako Gaztetxeak dena prest du aurtengo musika saio berezienetako baterako: Bertsio Gauerako. Hurrengo asteko asteburuan izango da hitzordua, martxoaren 25ean, larunbatarekin, eta Gazte Asanbladak musika taldeak eta musikariak animatu ditu musika jaialdi herrikoian parte hartzera: «Lotsak alde batera utzi, eta animatu parte hartzera».

Antolatzaileek egunera bertara arte ez dute jakingo zenbat talde igoko diren Gaztetxeko oholtzara. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira, baina taldeekin bilera 20:00etan egingo dute, denen artean erabakitze-ko kontzertuen hurrenkera. Adostasunik ez badago, hurrenkerazoketa bidez erabakiko dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Kantuei dagokienez, Gazte Asanbladak kontatu du gehienek hiruzpalau abesti jotzeko aukera izaten duela musika talde edo bakarlari bakoitzak.

306 ur pitxar berrerabilgarri ostalarientzat

-JABI GONZALEZ TOSTON

Zarauzko

Zarauzko Udalak kristalezko 306 ur pitxar berrerabilgarri banatuko ditu herriko ostalaritza guneen artean datozen egunetan, doan. 30 izan dira, zehazki, orain arte udalarekin harremanetan jarri diren negozioak. Plastibistak kanpainaren parte da egitasmoa, eta joan den hilean abiatu zuten. Helburua da plastikorik gabeko Zarauz baten aldeko urratsak bultzatzea.

Egitasmoak «harrera ona» izan duela iritzita, udalak erabaki du elkarte gastronomikoei ere zabaltzea eskaera egiteko aukera. Hori bai, pitxarrak oraindik eskatu ez dituzten taberne eta jatetxeek badute aukera eskaera egiteko. Horretarako, Zarauzko Udaleko Agenda 21 Sailarekin harremanetan jarri behar dute interesdunek, telefonoz 943-00 51 59 zenbakira deituta, edo, nahiago izatera, posta elektronikoz, n-olkiegi@zarautz.eus helbidera mezua idatzita.

Larunbat honetan sailka daiteke Zarautz errugbi taldea finalerdietara

Getxori irabazi eta sailkapenean atzetik dituen taldeek galtzen badute, matematikoki lortuko du txartela • Denboraldiko porrot handiena jaso zuen Alcobendasen, asteburuan

- JABI GONZALEZ TOSTON

Zarautz errugbi taldeak gertu du bigarren faseari begira bere buroari bota zion erronka betetzea. Maila igoera lehiatzeko finalaurrekoak jokatzea du helburu, eta bide horretan erabakigarria izan daitekeen norgehiagoka izango du larunbatean. Getxo hartuko du Astin, eta garaipenak finalerdietara jokatzea saikapen matematikoa eman diezaiotke bi jardunaldiren faltan. Horretarako, hori bai, sailkapenean gertu den dituzten taldeek partidak galtzea behar dute.

Ohorezko B mailako elite multzoko bigarren sailkatua da Zarautzko taldea une honetan; azkenen, berriz, Bizkaikoa, eta aurreko jardunaldian jokatu zuen partida da galdu ez duen bakarra bigarren fasean. Irabazi ere ez zuen egin, ordea: azken unean egin zion ihes garaipenak, eta berdinketarekin konformatu behar izan zuen.

Lehenengo fasean ere jokatu zuten elkarren aurka bi euskal taldeek. Berdin du zuten orduan, baina bolada kaskarragoa darama orain Getxok, eta horri etekina ateratzen ahaleginduko da etxeko taldea. «Urrian Asti bisitu zutenean baino dezentetago hobeto; beraz, garaipena lortzea ez ezik, bost puntu eskuratzea ere bada helburua», adierazi dio UROLA KOSTAKO HITZARI Juan Sorreluz Zarautz errugbi taldeko kapitainetako batek.

Sorreluzek argi du, halaber, sailkapeneko zein postutan



Ander Aristi Zarautz errugbi taldeko jokalaria Alcobendasekoa geldiarazten, asteburuan. PRESTAENEA

amaitu behar lukeen taldeak bigarren fasea amaitutakoan: «Bigarren edo hirugarren izan behar dugu finalurrekoetan Alcobendas saihesteko eta finala jokatzea aukera gehiago izateko». Gehiago ere esan du errugbi jokalaria zarautzarrak: «Alcobendasekin berriro gurutzatuko gara, ziur nago».

Aurtengo porrot handiena

Hain justu, Alcobendas da Zarautzkoek izan duten azken aurkaria. Ez da nolanahiko taldea; lehen mailako talde indartsuena da zena: «Lehen zati osoan guk agindu genuen jokoan, baina ez genuen puntuak egiten asmatu. Asko barkatu genuen, eta Alcobendas bezalako taldeen aurka ordaindu egiten da hori.

gatik jaitsi zuten Ohorezko B mailara.

Alcobendasek taldea goitik behera aldatu badu ere, oso indartsua izaten jarraitzen du, eta aise menderatu ditu orain arteko aurkari guztiak. Nolanahi ere, Zarautzkoak sinetsita zeuden estu hartzeko gai izango zirela, eta bidaia itxaropentsu egin zuten. Baina bestelakoa izan zen partida amaieran markagailuak erakutsi zuen emaitza: 38-3. Denboraldiko porrot handiena.

Dena den, Sorreluzen hitzetan, emaitzak ez du islatzen zelaian ikusi zena: «Lehen zati osoan guk agindu genuen jokoan, baina ez genuen puntuak egiten asmatu. Asko barkatu genuen, eta Alcobendas bezalako taldeen aurka ordaindu egiten da hori.

Hamabost minutuko epean hiru entsegu egin zizkiguten, eta horrekin erabaki zuen partida».

Zaleen indarra

Joko eremuan Madrilgo taldea nagusitu zen arren, parekoa izan zen talde bakoitzeko jarraitzaile kopurua harmailetan. Azpimarratzekoa da hori, etxetik kanpo aritu baitzen Zarautz.

60 lagunetik gora bertaratu ziren taldea babestera, batzuk klubak antolatutako autobusean, eta besteak beren kasa; izan ere, zenbaitek asteburua Madrilen pasatzeko aprobeztatu zuten partida. Halaber, ez zen izan salbuespena, L'Hospitaletara (Katalunia) edo Santanderrera (Espainia) ere hamarnaka zale bertaratu baitziren.

Odola emateko aukera izango da gaur arratsaldean

GIZARTEA // Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak hilaren erdialdean egin ohi ditu odol ateraldiak Zarautzen. Hori horrela, gaur bertan egingo dute martxokoa. Beraz, odola eman nahi duten eta osasun baldintzak betetzen dituzten herritarrek 16:30etik 20:30era izango dute horretarako aukera. Hori bai, aldeztu aurretik abisatu beharko dute 943-00 78 85 telefonora deituta. Goizean egin dezakete.

Doako perkusio ikastaroa emango du Rakel Arbeloak

KULTURA // Imanol Urbietak udal musika eskolak antolatuta, perkusioko ikastaroa eskainiko du Rakel Arbeloak ostiral arratsaldean. Musikiariak jazz bateria ikasketak gauzatu zituen Donostiako Musikene eskolan, eta, ondoren, jazz bateriako masterra egin zuen Lisboako Goi Eskolan. 18:00etan hasiko da ikastaroa, eta musika eskolako areto nagusian egingo dute. Doakoa izango da sarrera.

Gurutzurru aisialdi taldea Igorin mendira igoko da igandean

KIROLA // Erefiotzu (Gipuzkoa) ingurua hautatu du Gurutzurru aisialdi taldeak hurrengo iteara egiteko. Igande goizean izango da, 09:00etan abiatuta, eta hain ezaguna ez den Igorin mendira igoko dira, zehazki, 7,1 kilometro eta 429 metroko desnibel dituen ibilbideak, eta parte hartzeak interesa dutenak azken bi egunak dituzte izena emateko. Mendizabal klinika dendan egin beharko da izen ematea, bihar 19:00ak baino lehenago.

«Gurasoek ez dute nahikoa erreminta talde lanerako»

ITXASO BERISTAIN PSIKOTERAPEUTA

Itxaso Beristain (Zarautz, 1989) psikoterapeuta eta sexologoa da, eta hark zuzentzen ditu Azkoitian Guraso Eskolak. Gurasoen kezka iturriak zein diren eta horien aurrean nola jokatu azaldu du.

–ANDONI ELDUAIEN

Zer dira Guraso Eskolak, eta zein dira egitasmoaren helburuak?

Gurasoei erremintak emateko eta babesa eskaintzeko saioak dira Guraso Eskolak. Bakoitza ahal duen guraso onena izatea da asmoa, eta Guraso Eskoletan horretarako tresnak ematen dizkiegu haiei. Programak nahi du nerabe edo haur horiek biharko egunean nahikoa autonomia izatea eta norbere buruarekin gustura egotea.

Erremintak aipatu dituzu...

Bizitzarako trebetasunak lantzen ditugu eskoletan, baita gurasoen autoezagutza ere. Pertsona gisa, garrantzitsua da barrutik kanporako ezagutza lantzea. Aurrena, gurasoek norbere burua ezagutu behar dute, eta gero, posible izango dute seme-alabekin beste modu batera jokatzeko eta horiek beste modu batean hezteko. Horretarako erremintak ematen dizkiegu.

LH eta DBH mailetak gurasoei eskaintzen dizkiezue eskolak.

Egitasmoaren arabera, programa bat zegoen LHko gurasoentzako. Dena den, talde txikia osatu zen, eta guztion artean adostu genuen eskoletan zer-nolako gaiak landu nahi genituen. Hori horrela, programa desberdina ari gara lantzen LHko eta DBHko seme-alabak dituzten gurasoei. DBHko gurasoei komunikazio asertiboa ari gara lantzen, baita horri mugak nola jar dakizkioketen ere.

Komunikazio asertiboaz ari zarenean, zer adierazi nahi duzu?

Komunikazioa asertiboa izan dadin, kontuan izan behar da zer-nolako emozioak dituen norbanakoak. Seme-alabekin era asertibo batean hitz egiteko, epaiketarik nahiz gaitzespenik gabe, sentitzen diren emozioak landu egin behar izaten dira; haserre, adibidez. Haserre baldin badago pertsona, oso zaila da asertiboki komunikatzea. Hase-rra, gainera, barrua husteko erabiltzen dugu. Emozioetan ez-jakinak gara, ez dugu-eta horretarako hiztegirik.



«Ama edo aita izateko, beharrezkoa da aurrelanketa egitea»

«Ezkontideen arteko harremana gauza bat da, eta beste bat gurasoen artekoa»

Zer-nolako edukiak lantzen dituzue LHko haurrak dituzten gurasoei?

Hamar emakume aritu dira eskola horietan. Amen zirkulu txiki bat eratu genuen, eta haiekin etxeko zenbait egoera nahiz han izaten dituzten bizipenak landu genituen. Saiatu gara ama ona izatea zer den definitzen. Norbere burua ezagutu eta ermittoei baimena ematen badiegu, alboran ditugunak –kasu honetan, seme-alabak–, ezagutzeko gai izango gara. Haurrak ezagutu



ANDONI ELDUAIEN

egin behar dira. Seme-alaba bat baino gehiago dituztenen kasuan, haietako bakoitza berdin maitatu arren, gurasoek jakin behar dute haur bakoitza mundu bat dela.

Eta DBHko nerabeak dituzten gurasoei zer lantzen duzue?

Guraso horien kasua bestelakoa da. DBHko nerabeek mugak behar dituzte, eta adina tarteko, erronkak izan ohi dituzte. Pixkanaka, gurasoengandik bereizten hasten dira, ezezkioan mugatzen dira, eta horregatik, garrantzitsua da gurasoek autoezagutza izatea. Droga mendekotasuna eta sare sozialak izan ditugu hizpide, eta kasu horien aurrean seme-alabei nola lagundu behar zaien landu dugu.

Guraso Eskolak lehenago has-tea hobea al da gurasoentzat?

Guraso izan baino lehenago hasi beharko litzuzke jendeak halako eskolak. Gurasoa izan nahi duen edo ez erabakitzeke, ama edo aita izaterako, beharrezkoa da aurrelanketa egitea. Bestalde, guraso izatearen inguruan bakoitzak duen iritzia ere elkarba-natu beharko litzateke. Oinarri-tik hasi beharko luke jendeak.

Zer bide daude horretarako?

Zenbait herritan eskaintzen dira Guraso eskolak. Saio horiek, ordea, ez dira errazten gizarte-an, edota jendeak ez daki horietara iristen. Eskolak eskaintzen ditundanean, sumatzen dut gurasoek oso gustura parte hartzen dutela saioetan eta eskertu egiten dituztela. Azkoitian, esaterako, oso talde polita osatu dugu; ama batzuek saio guztietan parte hartu dute. Opari bat da Azkoitiko Udalak halako zerbitzu bat doan ematea. Polita da hori, baina, aldi berean, tristea, partaide gutxi aritzen garelako. Garrantzia eman behar lieke jendeak halako kontuei.

Generoak ba al du eraginik guraso izaterakoan?

Nire iritziz ez, baina orokorrean, bai. Egun, oraindik, ez zaio gauza bera egitea eskatzen ama bati edo aita bati. Horrek ez du esan nahi beti ama denik seme-alaben lotura afektiboa; goxotasuna eskaintzen duten aita pila bat daude. Hori, ordea, niretzat ez da inplikazio kontua; egun gurasoek ez dute beren artean talde lana egiteko nahikoa erreminta. Ezkontideen arteko harremana

gauza bat da, eta beste bat, guztiz desberdina, gurasoen arteko harremana. Gainera, sarri nahastu egiten dira bi kontzeptuak. Bi gauzak desberdintzea da gakoa, baina ez digute erakusten horretan.

Haurra izatetik nerabe izatera egiten den bideak ardura sortzen al du gurasoen artean?

Askotan aipatzen da habia hutsaren kontua. Gurasoen haur txiki horrek haurra izateari uzten diorean, dolua sortzen da guraso askorengan. Prozesu hori heldu batek abandonu bezala senti dezake, eta horregatik, asko zaindu behar dira afektuak eta emozioak. Gurasoek jakin behar dute haur horrek bere bidea egin behar duela. Maitasuna askatasuna ematea dela sinetsi behar dugu. Adibide bat ematearren: itsasontzi txiki horrek [haurrak] ibiltzen hasi behar du, eta aurrera egin ezin duenean, lagunduko zaio. 18 urtetik aurrerako nerabeen gurasoek haien portua izan behar dute, itsasontzia itzultzen denean hor egon daitezten, bai babesa emateko, bai konfiantza lantzeko. Gurasoen rola desberdina izan behar du haurra LH garaian dagoenean edo hark 16 urte ditenean.

Zein dira egungo gurasoek dituzten kezka nagusiak?

Azkoitiko Guraso Eskoletan amek bakarrik parte hartu dute. Aberasgarria litzateke aita batzuk ere saioetan izatea, ziur nago-eta bakoitzaren kezkak desberdinak direla. Mugak nola jarri, nola sentitu errudun, nola lagundu seme-alabei biharko egunean heldu zoriotsuak izaten, sexu heziketa, adimen emozionala... Horiek dira sumatzen ditudan kezka nagusiak.

Zenbat gurasok parte hartzen dute Azkoitiko saioetan?

LHko seme-alabak dituzten gurasoei egin nituen aurreneko zortzi saioak, eta hamar edo 11 lagunek parte hartu zuten. Orain, DBHko hamabi gurasorekin bil-tzen naiz.

Zer asmo dituzu azken saioetarako?

Apirilaren 25ean amaituko ditugu eskolak, eta nire asmoa da komunikazio asertiboa lantzen hastea eta gurasoei mugak jartzen irakastea. Horretarako, saio praktikoak egingo ditugu. Askotan teoriaren bueltan aritzen gara, baina garrantzitsua da teoria horiek egoeren aurrean praktikan jartzeko. Gurasoek sarri pentsatzen dute haserre dauden egoeretan jarri behar dituztela mugak, baina mugak maitasunetik jarri behar dira.

Gazteen kontsumo ohiturak aztertuko dituzte Guraso Eskoletan

Gurasoentzako saio bana egingo dute martxoaren eta apirilaren amaieran, Alondegiko Oxford aretoan • Agipad elkarteko Amaia Barcenilla izango da gidaria • Izena aurrez eman beharko da

—JUAN LUIS ROMATET

Gazteen kontsumo ohiturak izango dituzte hizpide Zumaian egingo dituzten Guraso Eskoletan. Gazteen gurasoei zuzendutako saio bana antolatu dute martxorako eta apirilera, eta horietan parte hartzeko aurrez izena eman beharko dute interesdunek.

Seme-alaben kontsumo ohiturak kezka iturri izan ohi dira gurasoentzat, eta zalantza edota ardura horiei erantzun nahian egingo dituzte Zumaia bi saioak. Hizlaria edo saioen gidaria

Agipad elkarteko Amaia Barcenilla izango da. Agipad drogen abusuaren ikerketa sustatzeko eta kontsumoaren prebentziorako elkartea da.

Lehen saioa martxoaren 29an egingo dute, asteazkenez, eta landuko duten gaia *gure seme-alaben kontsumoak* izango da. Bigarren saioa apirilean izango da, hilaren 26an, asteazkenez, eta *gazteen kontsumo ohiturak* izango da gaia. Bi saioak Alondegia kultur etxeko Oxford aretoan egingo dituzte, 18:00etatik aurrera.

Saio batean, bestean edota bietan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute Branka eraikinerako bertaratuta (Zumaia Gizarte Zerbitzuen egoitza), brankaharrera@zumaia.eus helbide elektronikora idatzita edo 943-86 22 00 telefono zenbakira deituta.

Saioak bereziki nerabeen gurasoentzako sortutakok direla adierazi dute antolatzaileek, baina gaien interesa duen orok parte harte hartu ahal izango du horietan.

Gurasoak heziketa prozesuan



Gazteen kontsumo ohiturek kezka sortu dute gurasoen artean. HITZA

inplikatzeko eta horretarako laguntza eskaintzea dute helburu Guraso Eskolek, baita gurasoen arteko sare berriak sortzea ere. Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Hezkuntza eta Gazteria sailek elkarlanean antolatutako programa da Guraso Eskola, eta 0 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteen gurasoei zuzenduta dago.

Hiru taldetan banatuta, adin tarte bakoitzaren ezaugarrietara

egokitutako formakuntza jasotzeko aukera dute herriko gurasoek. Programa martxan jartzeko, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du Zumaia Udalak, eta hitzaldietako batzuk Treba Gurasoak programaren barruan kokatzen dira. Aldundiko Gazteria zuzendaritzaren prestakuntza egitasmoa da azken hori.



ura URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar. 2012ko Munduko Emakume Chef Onena.

EUSKADIKO ITUN BERDEA | EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus

40. San Jose Saria txirrindularitza proba jokatu dute zapatuan**-N. URANGA**

Lagun Onak txirrindulari elkar-teak antolatutako San Jose Saria txirrindularitza lasterketak lau hamarkada beteko ditu zapatuan. Izan ere, probaren 40. edizioa jokatu dute junior mailako txirrindulariek. Antolatzaileek aurreikusi dutenez, 150 txirrindulari inguruk parte hartuko dute proban. «Hori da espero dugun kopurua, baina lasterketarako izena emateko epea bihar bukatuko da», zehaztu du Azpeitiko txirrindularitza elkar-teak.

Zapatuan, 15:30ean irteno dute txirrindulariek Ikasberri Ikastolaren paretik, eta 79 kilometroko ibilbidea egin beharko dute; bide gehiena Azpeitia eta Zestoa artean. Hain zuzen ere, Azpeitik irten eta Arroagora bi joan-etorri egin beharko dituzte. Tartean, orde, Azpeitiko kiroldegiko biribilgunetik Gazteko biribilgunera joan, Landetako industrialdea igaro eta Urrestillarako biribilgunera joango dira, Lan Mobil ondok Goenara igotzeko. Handik jaitsi ondoren, Arroagora bigarren itzulua egindakoan, azken kilometroak Gazteko biribilgunetik Altzartera igo eta jaitsiz egingo dituzte, eta helmugarako bidea hartuko dute. Helmuga Loiola hotelaren aurrean izango da, eta aurreneko txirrindularia 17:28-17:34 artean iritsiko dela aurreikusi dute antolatzaileek.

Iaz, Oscar Fuentes Alimco-Campagnolo taldeko txirrindulariak irabazi zuen San Jose Saria. Iker Zabaleta azpeitiarrak bigarren egin zuen.

Santutxon babestutako 28 etxe eraikitzeke plana onartu dute

Azpeitiko Udalak behin betiko onartu du proiektua egin ahal izateko Plan Berezia • Alkatearen arabera, etxebizitza beharrari aurre egiteko «pauso inportantea» da

-NEREA URANGA

Azpeitiko Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren 4.1. Santutxo eta 1.2. Done Jakue kalea eremuetako hiru azpiere-mutarako Plan Berezia behin betiko onartu du Azpeitiko Udalak. Erabaki hori joan den astean hartu zuten udaleko ordezkariak, martxoako ohiko udalbatzarrean. Plan horrek Santutxo auzoan babestutako 28 etxebizitza eraikitzea ahalbidetuko du. 4.500 metro koadroko eremuan egingo dituzte 28 etxebizitzak, eta horietatik hamar etxe babes ofizialekoak eta hemezortzi udal sustapenekoak izango dira. «Etxe horiek egin ahal izateko pauso garrantzitsua eman dugu Plan Berezia onartuta», azaldu dute Nagore Alkorta alkateak eta Leire Goenaga zinegotziak.

Pauso «garrantzitsua» eman duten arren, proiektua hasierako fasean dagoela azaldu dute, eta datorren agintaldian gauzatu dutela zehaztu du Alkortak. Orain, Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP) egin beharko du udalak, eta ondoren lursailen partzelazioa. Gero, etxebizitzak eraiki ahal izateko lehiaketa publikoa jarri beharko du martxan erakundeak.

Santutxo auzoan etxebizitzak eraikitzeko proiektuak hiru helburu dituela azaldu du alkateak: «Batetik, etxebizitza babestuen eskaintzaren bidez, azpeitiarren etxebizitza premiari erantzungo diogu; bestetik, Santutxo auzorako irisgarritasuna hobetuko



Nagore Alkorta Azpeitiko alkatea eta Leire Goenaga zinegotzia, atzo, Santutxon. NEREA URANGA

du proiektuak; eta hirugarrenik, Alde Zaharra biziberritzeko beste pauso bat emango dugu egitasmoarekin».

28 etxebizitza eraikitzearekin batera, Santutxoren eta Alde Zahararen lotura eta irisgarritasuna hobetzeko esku hartzea egin nahi du erakundeak. «Eskailerrak eraberritzeaz gain, igogailu

publikoa egitea ere aurreikusten dugu, horren bidez bi guneak gerturatzeko eta herritarren irisgarritasuna errazteko eta hobetzeko». Alkateak gogorarazi duenez, eremu horren inguruan, Apaizetxea zen eraikinean, babestutako etxebizitzak eraiki dituzte, eta beste etxebizitza bat erositako eta eraitsita du han udalak.

Etxebizitza politikan

Santutxoko proiektua azken urteetan babestutako etxebizitza politikaren barruan egin duten «urrats bat gehiago» dela esan dute Udal Gobernuako kideek: «Udalaren ildo estrategikoa bilakatu da etxebizitzaren, eta Etxebizitza Planean zehaztutako bide orria jarraitzen ari da. Azken urteotan, saiatu gara herritarrei tipologia eta babes desberdinetako etxebizitzak eskaintzen». Horren harira, Goenagak zehaztu du Alde Zaharreko hainbat

eraikin zahar eraitsi eta berritu dituztela babestutako etxebizitzak egiteko, Esklabak-Iturzulo eremuan babestutako etxebizitzak eraiki dituztela, eta urtea bukatzerako prest izango dituztela alokairuko 48 etxebizitza Esklabetan. «Gazteen emantzipazioa errazteko neurriak hartzen ari gara», esan du zinegotziak.

Etxebizitza eskaintza gainera, «etxebizitzaren inguruko lan-keta integrala» egiteko bidea abian jarri dutela nabarmendu du Alkortak, iaz udalak onartutako Etxebizitza Plana aintzat hartuta: «Planean zehaztuta daude datozen urteetan landu beharreko lau ardatzak: etxebizitza arloan arreta pertsonalizatua, informazio osoa eta aholkularitza zerbitzu integrala eskaintzea; hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko eta alokairura bideratzea; babes publikoko etxebizitza berriak sustatzea; eta eraikinen birgaitzea sustatzea».

Zozketak

28 ELIKADURA
ERRIGORA

[Zozketa zenbakia: 28]

Bi saski

**HITZA kideen TXOKOA**

29 SASKIBALOIA
**GIPEZKOAK BASKET -
HEREDA SAN PABLO BURGOS**

Martxoak 19 igandea,
12:00etan, Donostiako 11. unbe estadioan

[Zozketa zenbakia: 29]

Sarrera bikoitz bat



Zozketan parte hartzeko delitu: **943-56 01 64** zenbakira edo **webgune**ko **ZOZKETAK** atalean izena eman.
Epea: Gaurtik martxoak 16, 12:00ak arte. Sari-dunen izenak martxoaren 17an, ostirala, argitaratuko dira.

Gaztetxearen «premia» gizarteratzeko sinadura bilketa hasi dute

—ANE OLAIZOLA

Azkoitiko Gazte Asanblada espazio propio baterako premia, eta zehazki, «gaztetxe baten ezinbestekotasuna» ari da gizarteratzen azken hilabeteetan, eta taldearen eskaera herritargehiagorengana iristeko zein haien babesajasetako asmoz, prozesu bat jarri du martxan. «Proiektua geroz eta jende gehiagok bere egingo duen norabidean jardungo dugu», esan du taldeak. Hain zuzen, sinadura bilketa hasi du Gazte Asanbladak.

Proiektua Azkoitiko Gazte Asanbladak abiatu arren, taldeak azpimarratu du herriko beste hainbat eragilek zein norbanakok beharrezkoa dutela azpiegitura horren erabilera. Izan ere, Azkoitiko Gazte Asanbladaren arabera, herrian ez dago «proiektu politiko zein sozial anitzen sorburu den masa espazio erreferenterik». «Herrian nabarmena da instituzio publikoetatik kanpo zerbait antolatzeke edo modu interesatuan jardun politiko bat aurrera eramateko dagoen azpiegitura falta, eta beraz, hori ikusgarri egitea ere bada abiatu dugun prozesuaren helburuetako bat».

Espazioak aztertzen

Taldeak jakinarazi du herrian gaztetxe baterako balizko lekuak eta espazioak zein horien «potentzialitatea» aztertzen ari dela egun. Bide horretan, eremuak izan beharko litzuzkeen baldintzak zerrendatu ditu taldeak: kopkapenari dagokionez, gaztetxea herriaren erdian edo herrigune-

an, «gertu», egotea nahi dute, «herriari irismena ahalik eta eskuragarrien jartzeko». Era berean, azpiegituraren azalerak 150-200 metro koadro inguru izatea galdegin dute, bertan «eskaintza desberdinak» aurrera eramane dituzten; azpiegitura bera irisgarria izatea ere bada beste baldintzetako bat, eta ahal den heinean, eraikina zero kotan egotea eskatzen dute.

Azkenik, espazioak komuna eta kozinatzeke egokia izan daitekeen gunea eduki ditzala nahi dute. «Horiek ahalbidetzea ekarriko duten beharrezko materialak edo instalazio teknikoak posible izatea eskatzen dugu, besteak beste, hoditeria eta instalazio elektrikoak», gehitu dute.

Proiektura batzeko deia

Azkoitiko Gazte Asanbladaren esanetan, herriarentzat «aberasgarria» izango da gunea, haren erabilera «publikoak eta anitzak» askotariko eskaintzak ahalbidetuko dituelako. «Jakitun gara proiektuak aurrera egitea asanbladaren, herriko beste zenbait eragileren, eta noski, babesaj ematen dioten herritar oro- ren ekimena dela».

Hori horrela, proiektuari bultzada emateko asmoz hasi dira herritarren atxikimenduak jasotzen, eta zentzu horretan, ezinbestekotzat jo dute «herritarren indarra». Prozesura batzeko deia egiteaz gain, aurrera begira antolatuko dituzten ekintzetan parte hartzea gonbidatu dituzte herritarrek.

Graphenea enpresa teknologikoak egoitza berria izango du Azkoitian

Gipuzkoako enpresa teknologikoak 2.260 metro koadroko azalera duten lau lokal hartuko ditu Oinartxo industrialdean, eta lantaldea 29 lanpostura arte handitzea aurreikusten du.

—ANDONI ELDUAIE

Graphenea enpresa teknologikoa Azkoitiko Oinartxo industrialdera lekualdatuko da datozen hilabeteetan. Spri Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak jakinarazi duenez, grafenoaren ekoizpenean espezializatutako Gipuzkoako enpresak 2.260 metro koadroko lau lokal (bi altueratakoak) okupatuko ditu datozen hilabeteetan industrialde horretan.

Graphenearen lantegi berriak produkzioko, logistikako, biltegiko eta zerbitzuetako gunea izango ditu, eta instalazio berriarekin hogeiki bider handituko du egungo produkzio gaitasuna. Era berean, hainbat espazio atonduko dituzte bulegoetarako, kalitatearen kontrolerako, ikerketarako eta hondakinen ingurumen kudeaketarako. Hori horrela, enpresak aurreikusi du datozen urteetan Grapheneak 29 lanpostuko lantaldea izan dezakeela Azkoitian.

Jesus de la Fuente Grapheneako buruak azaldu du «sekulako aurrerapena» dela enpresaren-tzat Azkoitian gaitasun eta instalazio handigoak izatea. «Lantegi berri horri esker, posible izango dugu produkzio arloko teknologia berriak darabiltzaten maki-



Oinartxo industrialdea. SPRI

nak instalatzea eta industria gehigarriak dituzten produktu berriak garatzea, energia aurrez-teko eta CO2 isuriak murrizteko».

%98 atzerriara

Graphenea enpresak nanomaterialekin fabrikatutako produktuak eta konponbide berriak sortu nahi ditu herrian, batez ere, industria sektorerako.

Grafenoa material berritzailea da industrian, eta zehazki, Grap-

heneak arlo horretan garatzen du ekoizpena eta ikerketa. «Grafenoa ezinbesteko baliabidea bilakatu da korporazio ezagunen-tzat, unibertsitateentzat eta nazioartean dauden konpainia handientzat», azaldu du Spri. Gipuzkoako enpresa horrek bere ekoizpen osoaren %98 esportatu egiten du, eta gainera, berak ekoizten du mundu mailan fabrikatzen den grafeno guztiaren %40, batez ere, industriaren merkatutako.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitza eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
merkeago HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñintza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-8138 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 0017.
Posta elektronikoa: urolakosta@ukit.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitatea: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@ukit.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@ukit.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@ukit.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@ukit.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@ukit.eus.
Askotia: 607 49 87 27. askotia@ukit.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
zestoa@ukit.eus.

Gipuzkoako
Foru Aldundia

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia


Hitza-ko bezeroen
arreta zerbitzua
(zalantzak
argitzea,
harpidedun
egiteko):
943-30 30 35



Goiza



Arratsaldea



Temperatura

V 15°
A 8°

Mareak

Itsasgora 9:40-22:27
Metroak 3:12-3:15
Itsasbehera 03:20-15:54
Metroak 1:34-1:55

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

«Adinekoak izatea aldarrikatu behar dugu, garai ederra baita»

MIKEL AGIRRE UDABERRI JUBILATUEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

Zarauzko Udaberri jubilatuen elkarteak Udaberri Astea ospatuko du gaur hasi eta hilaren 24ra bitartean. Elkarteko presidentek antolatutako dituzten ekintzen berri eman du.

-ARITZ MUTIOZABAL Zarautz
Gaur emango diozue hasiera
Udaberri Asteari. Ospatzeko
gogoz egongo zarete, ezta?

Bai, dudarik gabe. Gainera, aurtent bigarren urtez, normaltasunez ospatuko dugu; izan ere, pandemiaren garaian dena bertan behera utzi behar izan genuen, eta iaz moldaketa batzuekin itzuli ginen. Beraz, asteari asanbladarekin emango diogu hasiera, eta hurrengo zazpi egunetan askotariko jarduerekin giroa dugu.

Zer helbururekin antolatzen duzue Udaberri Astea?

Udaberri garaian sartuko gara laster, eta elkartearen izena Udaberri da. Udaberrian udaberri, eta adineko pertsonak, hain zuzen ere. Elkarteari izena eman ziotenek zerbait txukuna planteatu nahi izan zuten: zahartzaroa udaberri berri bateko garaia dela, alegia. Beraz, udaberri urtaroa kontuan hartzen da Udaberri instituzionala aldarrikatzeko. Adinekoa bai, baina bizirik! Zahartzaroa aktiboaren aldarria da, nolabait esateko.

Hala da, bai. Begi bistakoa da, gainera, mugimendu handia da goela. Jarduerak, ikastaroak, txapelketak eta abar direla medio, jende ugari mugitzen da elkartean. Era berean, jubilatutako berriak proposamen berriak eskatzen ari dira, eta neurri handi batean, beraiek ere aurrera eramaten ari dira aipatu jarduerak horiek. Orduan, batzordearen egitekoa ez da hainbeste sortzea, baizik eta jendea animatzea, koordinatzea eta baliabideak eskaintzea. Zentzu horretan, oso esperientzia polita bizitzen ari gara azken urte hauetan.

Udaberri Asteari dagokionez, iazko ildo beretik antolatutako



Mikel Agirre, ezkerretik hasita bigarrena, Udaberri elkartearen kideekin. ARITZ MUTIOZABAL

zue. Denetarikoa jarduerak prestatu dituzue: hitzaldiak, irteerak, lehiaketak...

Denetarik dago, bai, eta gauza horietako bat edo beste konfinamendu garaian sortu genuen; esaterako, Argazki Txapelketa. Udaberri Astea ospatzekoak girela konfinamenduetan harrapatu gintuen, eta webgunearen bidez askotariko ekintzak egiten hasi ginen. Horietako bat izan zen Argazki Txapelketa, eta horrekin aurrera jarraitu dugu. Bestalde, astea biribiltzeko, bazkaria berreskuratu dugu; iaz oraindik egoera ez zen ona, eta zuhurtziaz jokatu genuen. Aurtent, ordea, bazkaria egingo dugu Santa Barbara jatetxean, musika eta guzti, eta ehun lagun espero ditugu azken eguneko festan.

Etxeko historiari ere gainbegirada bat eman nahi diozue.

Udaberri elkartearen historia bildu nahi dugu; iaz lehen saioa egin genuen, eta aurtent jarraipena emango diogu egitasmoari, bigarren saioarekin. Alde batetik, erakusketak jarriko dugu bihar bulegoan azaldu zaizkigun argazki ugariarekin, eta bestetik, etzirako, solasaldia antolatuko dugu. Gure asmoa da jendearen feedback-a lortzea, eta horrela, guztion artean elkartearen ibilbidea osatzen joatea. Izan ere, gauza asko dago idatziz gabe, baina batekin zein bestearekin hitz egiten duzunean, oharitzen zara gertakari asko dituztela gogoan. Hori guztia oraindik bizirik dago, eta desagertu baino lehen jaso nahiko genuke. Udaberriren memoria biltzea da gure nahia.

Jarduera ugari egingo dituzue datozen egunotan, baina Udaberri ez da mugatzen aste bere-

zi honetara. Urte osora zabalitzen duzue eskaintza, eta, zentzu horretan, elkar oso dinamikoa da zuena.



«Oso esperientzia polita bizitzen ari gara azken urte hauetan elkartean»

Hala da, eta ez da guk sortu dugun zerbait, tradizioz etorri den zerbait baizik. Goiko solairuan eskaintzen ditugun ikastaroetan, astean zehar 250 pertsona inguru aritzen dira: taichi, yoga, fitness, billarra, abesbatza... Kulturari lotutako eguneko irteerak ere egiten ditugu, baita herrian bertan dagoen kultur ondareaz jabetzeko ibilbideak ere. Bestalde, 60+

Astea ere ospatzen dugu Zarauzko Udalarekin elkarlanean. Egia esan, urtean zehar gauza dezente antolatzen ditugu; utzaila eta abuztua izaten dira libre samar geratzen diren hila bateak, baina bestela, mugimendu handia izaten dugu.

Azken batean, adina aitzakia bat besterik ez da. Arimaz beti gazte, beraz?

Gazteari bere lekua utzi behar zaio. Gu gazte senti gaitzake, baina uste dut adinekoak izatea aldarrikatu behar dugula; alegia, zahartzaroa garai bat dela, eta ziur aski oso garai ederra. Alde batetik, bizi izandako esperientzia dugu, eta bestetik, gauzak ikusteko perspektiba ezberdina, distantzia gehiagorekin, beste patxada batekin. Garai berezia da, oso garrantzitsua, eta balioa eman behar zaio.

Udaberri Astea

GAUR, ASTEAZKENA

18:00. Bazkideen urteko ohiko batzarra, Modelo aretoan.

BIHAR, OSTEGUNA

18:00etik 19:30era. Udaberri elkartearen argazkien erakusketa, Udaberri tabernan.

ETZI, OSTIRALA

18:00etik 19:30era. Udaberri elkartearen historiari buruzko solasaldia, Udaberri tabernan.

MARTXOAK 20, ASTELEHENA

09:00. Irteera Udaberri; ondoren, hamaiketako.

10:00etik 13:00etara. Toka, igela eta ping-pong txapelketak, Udaberri patioan.

16:00etik 20:00etara. Mus, tute eta seiko urte txapelketak, Udaberri tabernan.

MARTXOAK 23, OSTEGUNA

10:00etik 13:00etara. Toka, igela eta ping-pong txapelketak, Udaberri patioan.

Arratsalde. Bingo berezia.

16:00etik 20:00etara. Mus, tute eta seiko urte txapelketak, Udaberri tabernan.

MARTXOAK 24, OSTIRALA

10:30. Sari banaketa, Udaberri tabernan.

13:30. Bazkaria, Santa Barbaran.